

2020-21 IKASTURTEAREN HASIERARAKO AURREIKUSPENAK

**Ondorengo neurri hauek behin-behinekoak dira, une honetako egoeraren eta agintariak gaur arte ezarritako xedapenen arabera.
Irailan eguneratuko dira.**

1. Ez da inola ere Ikastolara joan behar gaixotasunaren sintomarik badago (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...). Ikastolara etorri aurretik beti tenperatura hartu behar da.
2. Sintomak ikastolan agertzen badira, familiari jakinaraziko zaio, ikaslea berehala jaso dezan.
3. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako talde bakoitzak "bizikidetza-talde egonkor" bat osatzen du. Horren barruan, ez da maskara behar izango, eta segurtasun-distantzia gorde gabe jardun ahal izango dute elkarreraginean.
4. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera, maskara erabiliko da, baldin eta 1,50 metroko segurtasun-tartea mantendu ezin bada.
5. Ikastolara modu mailakatuan eta bereizitako sarbideetatik sartuko da:
 - Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak: goizeko 09:15ean sartu eta 16:45ean irtengo dira (13:15ean, irailan goizez gaudenean, ostiraletan 13:00ean). Ikastolako esparrura alboko bigarren ate berdetik sartuko dira eta atzeko patio estalian bilduko dira.
 - Gainerako ikasleak: ohiko ordutegia, sarrera 9:30ean eta irteera 17:00etan (13:30ean, goizez gaudenean).
 - Haur Hezkuntzako sarrera-irteerak: 2 urtekoak patioko alboko atetik, 3 urtekoak eraikineko ate nagusitik, 4 urtekoak atzeko patioko atetik eta 5 urtekoak Errota Zaharrera ematen duen alboko atetik (ikasturte hasierako bilera orokorrean azalduko da).
 - Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak: ate nagusitik sartuko dira.
 - Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak: bigarren ate berde batetik sartu eta atzeko patio estalian elkartuko dira.
 - Familiek ate nagusitik sartu behar dute esparrura, eta patio estali berriaren ondoko atzeko atetik irtengo dira.
 - Garrantzitsua da zirkulazioaren noranzko hori errespetatzea eta patioan pilaketarik ez sortzea; hau da, Ikastolara orduan heldu behar da, eta ez lehenago. Segurtasun-distantzia errespetatuko da.
 - Patioetan seinaleztatuta egongo dira ikasleak batzeko erabiliko diren lekuak. Ikastolaren barrualdera ordenean eta beti irakasle batekin sartuko dira.
6. Higiene pertsonaleko neurriak areagotuko dira eskola-orduetan: eskuak xaboiarekin edo gel hidroalkoholikoarekin maiz garbituko dira.
7. Atsedendien ordutegiak eta espazioak berrantolatuko dira, ahalik eta talde gutxien batera egon daitezten.
8. Eskola-garraioan, maskara derrigorrezkoa izango da 6 urtetik aurrera, hau da, Haur Hezkuntzako ikasleak bakarrik joan ahal izango dute autobusean maskara gabe.
9. Jantokia egongo da, baina gaur egun ez da oraindik txandarik eta ordutegirik zehaztu.
10. Ez da aurreikusten Ikastolatik kanpoko egonaldiak, etxetik kanpo gaua igarotzea dakarrenik. Datorren ikasturtean, beraz, ez da baserriak izango.
11. Printzipioz, ez dira dutxak erabiliko Gorputz Hezkuntzako klasearen ondoren, aldageletan ezin baita bermatu ez segurtasun-distantzia, ez maskararen erabilera.
12. Ikasturte hasierako bilera orokorrak klaseka egingo dira (ez mailaka), eta ikasle bakoitzeko pertsona bakarra (aita edo ama) joan behar da (partekatutako zaintza kasuetan izan ezik). Bileren datak Ikastolako webgunean iragarriko dira eta whatsapppe bidaliko dira.